BERDIÑ GABEKO ARRABATALARI

PABLO SARASATE JAUNARI

Gabeko chori jostalariak
iīsill iīsillik basuan
egun sentiya nabaitu arte
egoten diran moduan,
ots ezti bigun denak lo daude
arrabataren kolkuan
zure igurtzi legunaren zai
irintzi goīo goīuan
esnatu eta banatutzeko
alaitasuna inguruan.

Gizaldi denak arritutzeko
Jainkoak aukeratuba,
alde guzitan bear zaituen
doai aundizko maisuba,
besarkada ta chalo tartian
igaro dezu munduba;
euskaldunaren omengarritzak
iñolaz ere sortuba,
jakin nai nuke zenbat alditan
ote zeran aitatuba.

Lurbiran ez da zuk baño obeto
erakutsi lezakenik
illezkorraren kopet argiya
erramu sortaz jantzirik;
len esandako chalo sendoak
entzutez gogobeterik,
oiek utzita San Fermiñetan
pozkiro zatoz urrundik,
luzetzita zai dauzkatzunaren
besotan atsendu nairik;
naparra zera ta naparrak ez du
leyaltasuna besterik.
Begiramenaz orain agurtzen
zaitugu biotz barrendik.

EMETERIO ARRESE.

Tolosan, 1900-eko Garagarrillean.